



UDALAREN ERAKETA AKTA

BERTARATUAK:

Alkate-Presidentea

Joseba Vivanco Retes jauna

Zinegotziak

Joseba Vivanco Retes jauna

Zuriñe Frutos Gutierrez Barquin andrea

Unai Gotxi Kastrexana jauna

Arkaitz San Jose Martinez jauna

Alazne Lafragua Ureta andrea

Encina Castresana Astarloa andrea

Jose Miguel Vadillo Ribacoba jauna

Izaskun Perez Barragan andrea

Jose Maria Elejalde Ribacoba jauna

IDAZKARI/KONTU-

HARTZAILEA

M^a Ascension Hormazabal Meabe

Artziniegako herrian, 2019ko ekainaren 15eko 12:00etan, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. eta 196. artikuluetan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 37. artikuluan xedatutakoa betez, eta Artziniegako Udal berria eratze aldera, 2019ko maiatzaren 26an egindako Udal Hauteskundeetako emaitzak ikusirik, Tokiko Korporazioetako kide guztiak berritze aldera, alde batera zerrendatutako Zinegotzi Hautetsiak elkartu dira, Idazkari eta Kontu-Hartzaileak lagunduta, egintzaren gainean fede ematen duena.

ADIN MAHAIA ERATZEA



Jarraian, Korporazioko Idazkariaren eskutik, behin Saioa irekitzat eman ostean, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikuluekin bat etorri eta bertan xedatzen denari jarraiki, Adin Mahaia eratu da.

Adin Mahaia honakoek osatu dute: adin nagusiagoa duen zinegotzi hautetsia den Jose Miguel Vadillo Ribacoba, presidente modura, eta Unai Gotxi Kastrexana adinez txikiagoa den zinegotzi hautetsia.

UDALA ERATU AURRETIKO EGIAZTAPENAK

Adin Mahaia eratuta, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 36.2. artikulua xedatutakoaren arabera neurri egokiak hartu ostean, Idazkari eta Kontu-hartzaileak Korporazioari dagozkion izakinen (eskudirutan) eta berezko balioen inguruan Udal Kutxan eta Banku Erakundeetan gordetako egiaztagiriei buruzko dokumentazioa helarazi die Zinegotzi Hautetsiei, eta baita Korporazioaren Ondasunen inbentarioari buruzkoa ere.

Jarraian, Mahaiko Idazkariak, helarazi zaizkion kredentzial guztiak irakurri ditu, Zinegotzi hautetsien izaera egiaztatzeak. Horiek egiaztatu ditu eta Zinegotzi hautetsi bakoitzaren izaera kreditatu du.

Jarraian, Zinegotzi hautetsi guztiek Toki Araubideen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikuluan aipatutako deklarazio guztiak egin dituztela egiaztatu da. Hala, Adin Mahaiko Presidenteak gonbidapena luzatu die Zinegotzi hautetsiei deklarazioaren ostean eratorri den bateraezintasunezko arrazoiren bat ote duten azaltzeko, eta inork ez du inolako adierazpenik egin.

Kontuan izanik Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.4. artikuluan eskatzen dena eta Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 37.4. artikulua betetzen direla, eta Saio honetan Zinegotzi Hautetsien gehiengo osoa



dagoela, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 108.8. artikuluan aurreikusitako legezko betekizuna bete da, zin edo promes egitekoa.

ZIN EDO PROMES EGITEKO EGINTZA

Jarraian, Udaleko Idazkariak zin edo promes egiteko hurrengo formula irakurri du: Zin edo promes egiten duzue zure kontzientzia eta ohorez, Zinegotzi karguari dagozkion betebeharrak Erregearen aurrean leialki beteko dituzuela eta Konstituzioa errespetatu eta errespetaraziko duzuela Estatuaren funtsezko arau modura?

Zinegotzi hautetsi bakoitzak adierazpen hau egin du:

Joseba Vivanco Retes jauna (Euskal Herria Bilduko zinegotzia):euskal errepublika lortu arte legeak hala aginduta hitza ematen dut.

Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin andrea (Euskal Herria Bilduko zinegotzia):euskal errepublika lortu arte legeak hala aginduta hitza ematen dut.

Arkaitz San Jose Martínez jauna (Euskal Herria Bilduko zinegotzia):euskal errepublika lortu arte legeak hala aginduta hitza ematen dut.

Unai Gotxi Kastrexana jauna (Euskal Herria Bilduko zinegotzia):euskal errepublika lortu arte legeak hala aginduta hitza ematen dut.

Alazne Lafragua Ureta andrea (Euskal Herria Bilduko zinegotzia):euskal errepublika lortu arte legeak hala aginduta hitza ematen dut

Encina Castresana Astarloa andrea(Eusko Alderdi Jeltzaleko zinegotzia): legeak aginduta bai hitzak ematen dut.

Jose Miguel Vadillo Ribacoba jauna (Eusko Alderdi Jeltzaleko zinegotzia): legeak aginduta bai hitzak ematen dut

Izaskun Perez Barragan andrea (Eusko Alderdi Jeltzaleko zinegotzia): legeak aginduta bai hitzak ematen dut.

Jose Maria Elejalde Ribacoba (Alderdi Popularreko zinegotzia): Bai, promes egiten dut.

Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikuluan xedatutakoa bete ostean, 12:05etan, Artziniegako



Udala eratzat ematen da, 2019ko maiatzaren 26an egindako udal hauteskunderen ondoren.

ALKATEA HAUTATZEA

Ondoren, Hauteskunderen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluari jarraian, Korporazioko Alkate-Presidentea hautatu da.

a) Alkatetzarako hautagaiak izendatzea

Ondoren, Adin mahaiko Presidenteak zerrendaburu diren zinegotziei galde egin die ea Alkatetzarako hautagaitza mantentzen duten ala erretiratu egiten duten, adierazpen hauek egin dituztelarik:

- Encina Castresana Astarloa andrea (Eusko Alderdi Jeltzalea): bai, EAJ taldeak bere hautagaitza mantentzen du Encina Castresana Astarloarekin.
- Joseba Elejalde Ribacoba jauna (Alderdi Popularra): bai, Alderdi Popular taldeak bere hautagaitza mantentzen du Joseba Elejalde Ribacobarekin.
- Arkaitz San Jose Martinez (Euskal Herria Bildu): HB taldeak mantendu kandidatoa.

Adin Mahaiko presidenteak agerraldia egin du, behin adierazpenak entzunda, Artziniegako Alkatetzarako hautagai hauek izendatzeko:

- Joseba Vivanco Retes jauna Euskal Herria Bildutik.
- Encina Castresana Astarloa andrea Eusko Alderdi Jeltzaletik
- Joseba Elejalde Ribacoba jauna, Alderdi Popularretik

b) Bozketa-sistema hautatzea



Hautagaiak izendatu ostean, mahaiko Presidenteak gonbidapena luzatu die Zinegotzi hautetsiei Alkatea hautatzeko bozketa-sistema hauta dezaten (OFE, 101. artikulua).

Eskua altxatuta bozketa-sistema hautatu ostean, Zinegotzietan egin zaie zerrendatik boto gutxien eskuratu dituztenetik hasita, hurrenkera horretan.

Jose Maria Elejalde Ribacoba jauna (Alderdi Popularreko zinegotzia): Alderdi Popularra

Encina Castresana Astarloa andrea (Eusko Alderdi Jeltzaleko zinegotzia): Eusko Alderdi Jeltzalea

Jose Miguel Vadillo Ribacoba jauna (Eusko Alderdi Jeltzaleko zinegotzia): Eusko Alderdi Jeltzalea

Izaskun Perez Barragan andrea (Eusko Alderdi Jeltzaleko zinegotzia): Eusko Alderdi Jeltzalea

Joseba Vivanco Retes jauna (Euskal Herria Bilduko zinegotzia): Euskal Herria Bildu

Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin andrea (Euskal Herria Bilduko zinegotzia): Euskal Herria Bildu

Arkaitz San Jose Martinez jauna (Euskal Herria Bildu): Euskal Herria Bildu

Unai Gotxi Kastrexana jauna (Euskal Herria Bilduko zinegotzia): Euskal Herria Bildu

Alazne Lafragua Ureta andrea (Euskal Herria Bilduko zinegotzia): Euskal Herria Bildu

Bozketa amaituta, Mahaiko Presidenteak emandako botoak zenbatu ditu, emaitza honekin: bost boto Joseba Vivanco Retes Euskal Herria Bilduko hautagaiarentzat; hiru boto Encina Castresana Astarloa Eusko Alderdi Jeltzaleko hautagaiarentzat, eta boto bat Joseba Elejalde Ribacoba Alderdi Popularreko hautagaiarentzat.

Horren ondorioz, eta bozketaren emaitza ikusirik, zinegotzi kopurua bederatzikoa izanik eta gehiengo osoa bostekoa, mahaiko Presidenteak Joseba Vivanco Retes, Euskal Herria Bilduko zerrendaburua, izendatu du Artziniegako Korporazioko Alkate-Presidente 12:15etan.



JABETZAKO EGINBIDEA

Jarraian, TRRL legearen 18. artikuluekin eta OFE erregelamenduaren 40.2. artikuluekin bat etorri, Udaleko Idazkariak zin edo promes egiteko hurrengo formula irakurri du: Zin edo promes egiten duzu zure kontzientzia eta ohorez, Artziniegako Udaleko Alkate karguari dagozkion betebeharrak Erregearen aurrean leialki beteko dituzula eta Konstituzioa errespetatu eta errespetaraziko duzula Estatuaren funtsezko arau modura?

Jarraian, Alkatea horrela mintzatu da:

Euskal Errepublika lortu arte legeak hala aginduta hitza ematen dut. Por imperativo legal, hasta la proclamación de la República de Euzkaldherria, prometo

Zin egitearen ondotik, Mahaiko Presidente jaunak, mahaiko kide gazteena den Unai Gotxi jaunari eman dio hitza, izan ere, makila emateko egintza formalizatzeko Joseba Vivanco Retes jaunari ematea bere ilusioa dela adierazi du, azken hori izango delarik Aretoko presidentea eta Adin Mahaia desegin egin delarik.

Ondoren, Joseba Vivanco Retes jaunak, Alkate-presidenteak, hitza hartu du zera esateko:

Eguerdi on eta eskerrik asko hemen egoteagatik egun historiko honetan. Joan den maiatzaren 26a egun historikoa izan zen Artziniegarentzat, beste bat. Gaurkoa den bezala, 2019ko ekainaren 15a. Egun historikoa Udal honentzat, baina baita herri honentzat ere. Ibilbide berri eta ilusioz betea hasten dugu datozen lau urteei begira. Eta hemendik, nire eta nire kideen izenean, gure esker ona agertu nahi diogu, lehenengo eta behin, zuon botoarekin amets hau egia bihurtzeko laguntza eman diguzuenoi. Baina baita ere, beste aukera politiko batzuei babesa eman eta Artziniegarentzat onena nahi dutenei.

Duela lau urte, Aiaraldeak izan duen alkaterik onenetako batek, Pablo Gorostiagak, zera esan zigun, ia xuxurlan: irabazten baldin baduzue, bikain; irabazten ez baduzue, bada landareak ureztatzen jarraitzera. Irabazi egin genuen, ez genuen gobernatu, haren aholkuari jarraitu genion, landareak ureztatzen jarraitu genuen. Eta lau urte beranduago, berriro irabazi dugu eta gaur gobernatu egingo dugu. Metafora hura baliagarri izan zitzaigun ibilbide-orri modura eta hori izango da



datozen lau urteetan gure gidari. Landareak ureztatzen jarraituko dugu, baina ez bakarka. Azkenean gaur loratu den landare horrek zaintza behar du, maitasuna, ureztatzea... maitasunez, egonarriz, lanez, ekinaz, baina guztion artean, guztiokin. Zuen ere badelako. Zuek egin duzue posible.

Euskal Herri Bilduk, jarrera eraikitzaile eta ireki batetik, lanean jarraituko du bizilagunekin batera herri hobe, parte-hartzaileago eta inklusiboago baten alde. Eta azpimarratu gura dut: ez bakarrik guztiontzat, baizik eta guzti-guztiokin. Parte-hartzea, inplikazioa eta gardentasuna.

EH Bilduko zinegotziek itun bat daukatelako hautatuak izan ziren momentutik; itun bat Artziniega eta artziniegarrekin. Gure konpromisoa da udal honek leihoak eta ateak zabalik izan ditzala eta herritarrena izan dadila. Horregatik, behar bezalako bideak ezarri eta herritarrek eta gizarte-eragileek parte hartzeko formulak sustatu eta adostuko ditugu.

Gaur besaulki honen alboan horrenbeste urtez lanean egotearen fruitua jaso dugu. Oposizioko lana, baina beti eraikitzailea, zintzoa, ekarpenak eginez eta batuz. Desadostasunak azaldu ditugu eta adostasunetara iritsi gara. Eta beti kritika politiko hertsitik egin dugu eta beti Artziniegaren alde so, eta sekula ez demagogiari begira, irainik gabe, gezurrik gabe. Sekula ez dugu lur lokaztu hori zapaldu, ez da EH Bilduren estiloa, eta gaurtik esango dut inork hara bultzatzeko tentazioa baldin badu... hor sekula ez gaitu aurkituko. Horregatik oposizioko taldeetatik desadostasunak azaldu eta adostasunetara iristea espero dugu, besteok urteotan egin ez dugun ezer ez beraz.

Hauek izan dira gure lanaren ardatzak azken zortzi, lau urteotan, eta hala izango dira datozen lau, zortzietan... Eta goiburu horiei gehituko diegu, nola ez, beste konpromiso bat, tokikotasunetik munduratzen dena: gure Herriaren etorkizuna askatasunez erabakitzeko eskubidearen aldarrikapena. Aprobetxatu nahi dut gonbidapena luzatzeko herritarrei ekainaren 23an Gure Esku Dago herri-ekimenak Oletako landetan antolatu duen ekitaldira joateko, zutabe bat Artziniegatik abiatuko da eta.

Ez naiz luzatuko gehiago. Esker onak irteten den alkateari oposizioko gainerako taldeekin izan duen tratuatik, forma onak eta errespetua nagusi izango direlako itxaropenez lau urteotan bezalaxe. Agur esan utzi egingo gaituztenei,



bereziki Inmaculadari, hamabi urtez herriaren alde aritu ondoren. Zorionak jarraitzen dutenei eta ongietorria aurpegi berriei.

Era berean, nire eskerrak eman nahi nizkieke hainbat urtetan egiteko modu eta ideia bat, ikusi eta pentsatzeko modu bat, Artziniegako eraikitze modu bat, defenditu duten pertsona guztiei. Udaletxean duela zortzi urte EH Bilduren abentura zoragarri hau nirekin batera hasi zutenei oroitzua, Fernando eta Gorka, eta ezinezkoa proiektu hau Alazne, Unai eta Arkaitzekin lau urteotan partekatzea zer izan den hitzekin adieraztea. Eskerrik asko, besterik gabe. Jakintsu batek esan zuen behin gakoa inguruan zu baino pertsona adimentsu, trebe eta bizkorragoak izatea dela. Eta haren aholkua jarraitu dut hitzez hitz.

Amaitzera noa. Gogoan izan nahi dut, une hau oso berezia delako eta niretzat alkatea hautatua izatea den harrotasunagatik, bizi osoko Erdiko kalea, gogoan izanik, esaten nuenez, nire familia, bereziki Nerea, bere egonarri eta aholku jakintsuengatik. Nire kontzientziako ahotsa izateagatik. Nire ama Luisita, gaur beti bezain apain jarri baita; nire aita Jose Mari, inoiz ezagutu dudan gizon leial eta onena, zauden lekuan zaudela; eta ez nion nire buruari barkatuko, hemen eserita nagoelarik, gaur Artziniega denaren habeak hainbat urtez ipini zituen pertsona bereziki eta maitasunez oroitzua, uste baitut ez zaiola sekula merezi duen bezalako aitortza egin; Imanol Aretxabala dut ahotan, ohore bat zure makila jasotzea.

Besterik ez. Egonarria eta ulermena eskatu nahi dizuet, guretzat gaur ikaskuntza luzea hasten baita. Akatsak egingo ditugu, baina sekula ez dugu fede txarrez jardungo. Estropezu egiten badugu, badakit zuok hor egongo zaretela eskua luzatzeko. Gogoa dugu, ilusioa dugu, ideiak, konpromisoa... baina batez ere, zuok. Esan zuen Julio Vernek «gizaki batek imajina dezakeen guztia, beste batek egingo duela». Guri eta zuei tokatu zitzaigun errealitate bihurtzea beste batzuek imajinatu zutena.

Hasieran esaten nuen gaur egun historikoa dela, baina jaieguna ere bada, ospatzekoa. Gaur ospatu eta jai giroan egoteko eguna da. Astelehenean, lanera. Eskerrik asko guztioi. Gora Zuok, eta gora Artziniega!

Aretoan dagoen jendeak agerraldia txalotu du.

Agerraldia amaituta, Alkate jaunak galdetu du beste agerraldirik badagoen, hau baita uea.



Jarraian, Joseba Elejalde jaunak egin du agerraldia: "EH Bildu taldeari zorionak eman eta zuri Joseba, esan zure hitzak jasoz, Alderdi Popularrak oposizioa egiten jarraituko duela, oposizio eraikitzailea. Herri honetako auzotarren alde lanean jarraituko dut, eta astelehenetik aurrera hitza hartzen dizut, lan, lan eta lan, eta hemen izango nauzu oposizio modura, erortzen zaren aldiro, altxatzen laguntzeko, ez dakit baina hor izango naiz".

Alkate jaunak erantzun du azken lau urteotan adostasunak gehiago izan direla desadostasunak baino.

Beno, eskerrik asko etortzeagatik, eta hasieran esan dudan moduan, gaur ospatzeko eguna da, astelehena lanerako eguna izango da, eta besterik gabe Saioa amaitutzat ematen da hamabiak eta hogeitun minututan, Idazkari modura fede ematen dudalarik horren gainean.